



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

## **BANDOA**

Dagoeneko lau urte igaro dira Larraulgo Udalak [www.larraul.net](http://www.larraul.net) bere web orria martxan jarri zuenetik. Bertan, Udala eta herriari buruzko informazioa ikusgai dago.

Web orri honen azalean, bada ataltxo bat Udal Zerbitzu Telematikoak eskeintzeko.

Zerbitzu honen bidez, herritarrak, Larraulgo Udalean edo beste Udaletxeetan altan dituen espedientei buruzko dokumentuak ikusteko edo eskuratzeko aukera du. Adibidez, errolda agiriak, zergen erreziboak, dokumentuen erregistroa, isunak, obra txikien eskaera espedienteen kontsulta, e.a.

Udal Zerbitzu Telematikoak erabili ahal izateko identifikazio sistema bat eduki behar da.

IZENPEK luzaturiko ziurtagiri digitaldun txartela erabili daiteke. Txartel hau Euskadiko Administrazioan zerbitzu telematikoak eskeintzen dituzten erakunde guztietan da erabilgarria.

Beste aukera Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udal Zerbitzu Telematikoan atarirako emandako pasahitza erabiltzea da. Uste dugu aukera ona dela Udalarekiko harremanak erraztu eta behar direnean dokumentuak etxean ikusi eta eskuratzeko.

Identifikatzeko modurik ez baldin badaukazu [www.larraul.net](http://www.larraul.net) web orrian Udal Zerbitzu telematikoetan sartu eta zure pasahitza eskatu dezakezu hemen sakatuz atalean zure datuak bertan bete. Udaletxetik zurekin harremanetan jarriko dira pasahitza emateko.

Besterik gabe, edozein zalantza argitzeko deitu Udaletxera eta informatuko zaizue.

Larraulen, 2013ko apirilaren 15ean.

